

Nacho Duatoren 'Duende' Iruñean

'Dantza arratsaldeak' zikloa antolatu du Iruñeko Udalak maiatzerako

Nacho Duatok zuzentzen duen Espainiako Dantza Konpainia Nazionalak bere ikuskizuna aurkeztu zuen atzo Iruñeko Gaiarre antzokian eta gaur ere, taula gainean izango dira dantzari, koreografo eta zuzendari valentziarraren dantzariak, arratsaldeko 8etatik aurrera. Dantzak, egun, garai ona bizi duela nabarmendu zuen atzo Iruñean. Datorren asteburuan Donostian izango da, Maitza Dantzan jaialdiaren barnean.

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

Nacho Duatok zuzentzen duen Espainiako Dantza Konpainia Nazionala, atzo bezala, arratsaldeko 8etatik aurrera Gaiarre antzokian izango da gaur ere. Konpainiak, 'Dantza arratsaldeak' zikloaren barruan auzetu du bere ikuskizuna, Iruñeko Udalak antolatu zuen 'Antzerki arratsaldeak' zikloaren bigarren zatia dena, hain zuzen ere.

Nederlands Dans Theater konpainiak 1991. urtean La Hayan estreinatu zuen Nacho Duatoren 'Duende' koreografia da programa zabaltzen duena. Espainiako Dantza Konpainia Nazionalak, berriz, 1992ko abenduan estreinatu zuen obra hau Madrilén. Claude Debussyren musika inpresionista eta natura bera ditu oinarri Duatok lan honetan eta «mendira joan eta ikusi ez baina barruan sentitzen ditugun gauza guztiak» adierazi nahi ditu.

Programaren bigarren zatian William Forsytheren 'The yile parody of address' koreografia



Gaiarretik Victoria Eugenia antzokira joko du Nacho Duatok datorren asteburuan.

XABI VENTURA

dantzatzen dute konpainiako ki-deek. Bachen musikaz baliatuz, «mundu arraroa» sortzen du Forsythen, «mugimenduak sortu eta berehala bertan behera uzten ditu». Duatoren ustez, «obra zaila eta geldoa da». Mats Eken 'Haur zaharrak' da programaren azken obra. Honek ere mundu arraroa sortzen du Duatoren ustez, «pertsonea bereziak bizi diren ametsen mundua».

Nacho Duato'eta bere konpainia orain dela hiru urte egon ziren Iruñean baina Dantza Konpainia Nazionala zuzendariak adierazi zuenez, «orduan baino konpainia hobea ikusiko dute iruindarrek, orduz geroztik lan asko egin baitugu mundu osoan». Bere ustez, eguneroko lanaz gain, bidaiatzea eta ahalik eta eszenatoki gehiagotan dantzatzea oso garrantzitsua da dantzaria behar bezala garatu eta osatzeko.

DANTZA GARAIDEA OINARRI

Nacho Duatok argi utzi zuen atzo Iruñean Dantza Konpainia Nazionala «konpainia garaikidea» dela. Hala ere, dantza esanahi anitzeko hitza dela gaineratu zuen eta «dantza erranez, garaikidea, neoklasikoa edo klasikoa» ere adieraz daitezkeela azpimarratu zuen. Garrantzitsua, bere ustez, «mugimendu eta adierazpen berriak» sortzea da. Ildo berean, berak zuzentzen duen konpainiatik koreografo berriak aterako direla espero du Nacho Duatok «nahiz eta hemen koreografia ikasteko eskolarik ez egon». Halaber, koreografoaren eta dantzarien arteko harremana zuzena eta estua izan behar duela nabarmendu zuen valentziarrak. Bere ustez, harreman hori funtsezkoa da konpainia batek bere nortasu-

na finkatu eta dantzariak gartzeko.

Hala ere, orainoa garai «oso ona» da dantzarentzat Nacho Duatoren hitzetan. «Gero eta jaialdi gehiago egiten dira, antolaketa hobea da eta diru gehiago dago ere dantzarentzat», erran zuen konpainiako zuzendariak. Hala ere, oraindik ere dantzak behar adina laguntza ez duela jasotzen salatu zuen Duatok eta dantza «antzerkia eta musikaren atzetik» dagoela beti gaineratu zuen. Dena den, gaur egun, dantzak antzerki guztiak betetzen dituela azpimarratu zuen Nacho Duato dantzari eta koreografoak.

'Dantza arratsaldeak' zikloaren barruan, bestalde, Virski Ukrainiako Balet Nazionala maiatzaren 11n egongo da Iruñean eta Victor Ullateren Baleta, berriz, maiatzaren 25 eta 26an.

Zinemaldiak La Cavari eskainiko dio atzerabegirakoa

A. G. / DONOSTIA

Gregory La Cava zuzendari klasikoari eskainiko dio Donostiako Zinemaldiak aurtengo ekitaldiko atzerabegirakoa, haren filmografia osoa erakutsiko duen ziklo luze baten bidez. Horrez gain, Espainiako Filmategiak editatutako omenezko liburua kaleratuko dute irailean.

Gregory La Cava animaziozko zinemaren aitzindarietako bat izan zen eta komikien eta marrazki bizidunen iturrietatik edan zuen bizitza osoan, beti ere Mack Sennett maixuaren aldamenean. Hasiere batean prentsan egin zuen lan eta hantxe argitaratu zituen bere istorio eta pasadizio grafikoak. Walter Lantz marrazkilari bihurriarekin aritu zen urte mordoska batez, zinemara bihurtu eta aurreneko laburmetraiak filmatzen hasi zen arte. Hogeiko hamarkadan ekin zion

zeregin horri eta zinemaren lege zorrotzei buruzko komedia arin batzuk zuzendu zituen zarpigaren artearen garai muñuan. La Cavak berak «errebeld» eta «bihurritza» definitu zuen sarritan bere burua eta oinordekoek denborari eta aurrerapenei aurre hartu ziela aitortu zuten behin baino gehiagotan.

Sonoroaren garaian, komedia ero eta korapilatsuen, mendera

jarri zuen La Cavak bere ironia fina, baina tarteka melodrama dotoreak ere egin zituen. Medikuek, ama ezkongabeek eta alargunek osatu zuten bere lehen ekoizpen sonoroko protagonisten errepartoa 'Shimphony of Six Millions' edo 'Private Worlds' bezalako filmetan. Hogeita hamarrek hamarkadaren bukaeran zuzendu zituen bere obrarik biribilenak: 'My

Man Godfrey', 'Fifth Avenue Girl', 'Stage Door'. La Cavak estilo partikularra erantsi zien klase enfrentamendu horiei, bere estilo komiko eta 'animatuaren' bitartez. Alkohoslimoak jota eman zituen bere bizitzako azken urteak eta Gene Kelly aktorearekin egin zuen bere azken filma, 'Living in a Big May', egundoko porrota izan zen. La Cava 1952. urtean hil zen.

Ginger Rogers aktorea hil da. Kalifornian

A. GOSTIN / DONOSTIA

Oscar sari bat, 73 luze-metraia eta Fred Astaire-
ren itzal astuna utzita hil zen joan den asteartean Kalifornian Gingers Rogers aktore estatubatuarra. Rogersek 83 urte zituen eta horietarik 65 eman zituen ikuskarien munduan, antzerkia, dantza, zinema eta telebistan arituz, Hollywood klasikoko azken interpreteen antzera. Komediak, dramak eta bere dohain interpretatiboak erakusteko moduko pelikula 'serio' franko egin zituen bizitzan, baina, hala ere, bere izenak jenero musikalaria eta Fred Astaireren izenari lotuta iraun zuen eta iraungo du beti.

Ginger Rogersek eta Fred Astairek guztira hamar filme egin zituzten elkarrekin, 'Flying down to Rio-n' topo egin zutenetik. Emakumezkoak pieza bakar bat dantzatu zuen musikal horretan, 'Carioca' izenekoa, baina numero horrek txundituta utzi zituen ikusleak eta Astaire eta Rogers belaunaldi bateko bikote ideal bihurtu ziren. Ideala pantaila aurrean, platoetatik urrun ezin izaten baitzuten elkar ikusi ere egin. «Oso harreman lehorrak izan genituen beti. Sekula ez ginen elkarren lagun izan. Ezta etsai ere. Fred oso aspergarria zen platotik kanpo. Inkomunikatiboa zen», adierazi zuen Rogersek.

Gainera, Fred Astaire-
rekiko harreman horrek ez zion onik ekarri batere, Ginger Rogers aktore izan baitzen dantzari baino gehiago. Dantzari kaskarra zen. Astairek karreatu egiten zuen ondotik, gordin esateko, eta ekoizleek orkatilaraino luzatzen zizkioten soinekoak, kamerak bere oin mugimendu trakets eta baldarrak erakutsi ez zituzten. Nolanahi dela, bikoteak estilo berezia sortu zuen eta bizpahiru perla txiki utzi zituen zinemaren historiako, batez ere Mark Sandrichen aginduetara antzeztutako lanetan, 'The Gay Divorcee' eta 'Top Hat-en', adibidez.

Bikoteak leher egin eta bereizi ondoren, Ginger Rogersek askoz ere bide pertsonalagoa jorratu zuen, eta Akademiak Oscar saria eman zion San Wooden 'Kitty Foyle' dramaren egindako antzezlan benetakoari esker. Hortik aurrera, bere berezko dohainak erakutsi zituen.

IRAGARKI MERKEAK (943)300222

SEBASTOPOLEKO
TITIRITEROAK

TF: 908 77 23 47

31 x 33 mm

31x33
MODULO

EGUN BAT 2.310 pta/74 l
ASTEBETE 11.235 pta/357 l
BI ASTE 19.850 pta/630 l
HILABETE 27.565 pta/875 l